

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	DANOBAT KOOPERATIBA
2. Sektorea:	MAKINA-ERREMINTA
3. Langile kopurua:	400
4. Webgunea:	www.danobatgroup.com
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>DANOBATen makina-erremintak, giltza eskura erako lerroak eta aplikazio espezifikoetarako soluzio aurreratuak garatzen eta hornitzen ditugu, goi teknologiko sektoreei eta baldintza tekniko zorrotzak eskatzen dituzten bezeroei zuzenduta.</p> <p>Hau da, azkenean, gure eskaintza: makina aurreratuak, doitasun, fidagarritasun eta produktibitate handia bermatzen dutenak eta mekanizazio prozesurik zorrotzeneri aurre egiteko diseinatuta daudenak; soluzio aurreratuak, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako, bere sektorean liderrak diren enprekin elkarlan estuan arituta garatutakoak eta soluzio erabat automatizatuak eta giltza eskura erako lerroak ematen dituztenak; eta zerbitzu aurreratuak, informazio eta komunikazioko teknologiarik modernoenetan oinarritutakoak.</p> <p>Batez ere atzerriko enpresa pribatuei saltzen dizkiegu gure makinak, mundu osoan.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	JON MUGARTEGI ARANBARRI
Helbide elektronikoa:	jmugartegi@danobat.com
Telefonoa:	+34 943 74 80 44

<p>1. Praktika onaren titulua:</p>	<p>Kontratazio berriak: hautaketa, euskara planaren harrera eta euskararen gaitasunaren kudeaketa.</p>
<p>2. Praktika onaren azalpena:</p> <p>Zer da? Zertan datza?</p> <p>Nondik dator?</p> <p>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</p>	<p>Euskara Batzordeak egindako lanketaren ondoren, 2014an onartu zituen kooperatibako Kontseilu Errektoreak lanpostu guztietarako euskara eskakizunak (profilak). Eskatzen den gutxiengo maila B1 da eta gehienezkoa B2. Ingelesarekin batera egindako lanketa izan zen.</p> <p>Pertsonen arlotik argitaratzen diren lan eskaintza guztietan zehazten da postuari dagokion euskararen eskakizun maila. Beste ezaugarriekin batera, euskara profila ere kontuan hartzen da langile berria hautatzeko prozesuan.</p> <p>Langile berri (kontratatuak, bekadunak, praktikagileak, karrera amaierako proiektuak) guztiei egiten zaie euskara planaren harrera. Euskara zerbitzuko aholkulariak egiten die, taldean zein bakarka. Erakundeko harrera plan orokorrean txertatuta dago, Kalitatea eta Prebentzioa gaiekin batera.</p> <p>Euskararen erabilera zein den azaltzen zaie, bai eta euskara planaren bestelako gai batzuk ere: motibazio ekintzak, laguntzarako tresnak, euskara ikasteko aukerak, hizkuntza politika eta irizpideak, euskarazko tresna informatikoen erabilera...</p> <p>Horrez gain, kontratatuei lanpostuetako euskara eskakizunen gaia azaltzen zaie eta beraien lanpostuari dagokion mailaketa proba egiten zaie.</p> <p>Dagokion euskara eskakizuna betetzen ez duen kontrataturi formazio-plana zehazten zaio, frogaldian zehar (2 urte) lanpostuari dagokion euskara gaitasuna lortzeko. Euskara maila hori ebaluazioetan berrikusten da sei hilean behin. Behin betiko bazkide egin aurretik, Danobatek homologatutako enpresa batek azterketa egiten dio langileari lanpostuak eskatzen duen hizkuntza eskakizuna betetzen duen egiaztatzeko. Inor ezingo da behin betiko bazkide egin prozedura honek zehazten dituen hizkuntzen mailaketa-frogak gainditu gabe (euskararenak barne).</p> <p>Formazio-planean jasotakoa betetzeko, erakundeak euskara eskolak eskaitzen ditu, beste hizkuntzekin batera. Eskolak enpresak ordaintzen ditu eta ikastaroan eman beharreko orduak langilearen kontura izaten dira. Bakoitzaren mailaren arabera antolatzen dira klaseak eta kanpoko hornitzaile bat kontratatzen da klaseak emateko.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

EGUNA DÍA		ORDUA HORA	IRAUPENA DURACION	FASEA FASE	LANTZEKO GAIAK TEMAS A TRATAR	FUNTZIOA FUNCION	DOKUMENTAZIOA EMATEA ENTREGA DOCUMENTACION	HEZITZAILEA FORMADOR
IZEN ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS				XXXX				
KAITZDanel altuna SAILA / DEPARTAMENTO			XXXXX		LANPOSTUA / PUESTO		XXXX	
21-04-12	7:00	30 min	Ongi Etorria	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratu eta nomina fitzaketa - Janbkia - Arropak eta EPI-ak - Prestakuntza - Lan-hizkuntza 	Giza balibideak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan egutegia / <i>Calendario laboral</i> - Sendagile zerbitzuaren ordutegia / <i>Horario del Servicio medico</i> - Sinaduren erregistroa / <i>Registro de firmas</i> - Isilpekotasun Agiria / <i>Documento de confidencialidad</i> - Euskaraz dakitenekin euskaraz (arduradunak informazio gehiago emango dio) - Bere lana euskaraz egingo du 		
21-04-12	9:45	30 min	Lan Osasun eta Segurtasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Prebentzioa - Lanpostuaren arriskuak eta aitzin-neurriak - EPI-en erabilera eta mantenua - Larrialdi Plana 	Lan Osasun eta Segurtasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Prebentzio Antolakuntza / <i>Organización de la Prevención</i> - Osasun eta segurtasun Politika / <i>Política Seguridad y Salud Laboral</i> - Arau orokorren Eskuliburua / <i>Manual de normas básicas</i> - Lanpostuaren Fitxa / <i>Ficha del puesto</i> - Produktu kimikoen informazioa / <i>Información de productos químicos</i> - EPI-en erabilera eta mantenimendua / <i>Utilización y mantenimiento de EPIs</i> - Ebakuazio plana eta jarduketa protokoloa / <i>Plan de evacuación y protocolo de actuación</i> - LOS Araudiak DANOBAT GROUPen / <i>Normas de SSL en DANOBAT GROUP</i> 		
21-04-12	9:15	30 min	Euskara	<ul style="list-style-type: none"> - Danobaleko euskara planaren berri eman eta euskara mailaren azterketa 	Euskera Teknikalaria	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara planaren nondik norakoak - Euskararen inguruko erabakiak, hizkuntza eskakizunak, hizkuntza irizpideak - Tresnak eta balibideak: eskuliburu teknikoak. - Euskara mailaren azterketa - Euskera erabiltzeko irizpideak 		

DANOBAT, KOOP. E.tik harrera planeko dokumentazioa jaso dut / He recibido de DANOBAT, S. COOP. la documentación del plan de acogida.

SINADURA / FIRMA _____ Elgoibar, 20..... ko(a)ren.....(e)an



EUSKARA PLANA - Harrera

2021



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA



DANOBATGROUP

Egun bizi dugun egoera dela eta, datorren ikasturteko hizkuntza eskolak online formatuan soilik emango ditugu. Kurtsoren batean interesa duen orok bere arduradunaren oniritzia beharko du eta Pertsona arloko departamentuari jakinarazi beharko dio Irailaren 2021/09/13a baino lehen.

Informazio gehiago: Ane Arriola · aarriola@danobat.com

Debido a la situación actual, las clases de idiomas del curso que viene solamente las vamos a retomar de manera online. Os enviamos las opciones para aprender idiomas que tendremos a partir de octubre. Todo aquel que esté interesado en alguno de los cursos que se mencionan a continuación, necesitará el visto bueno de su responsable y deberá comunicarlo al Departamento de personas antes del 13/09/2021.

Más información: Ane Arriola · aarriola@danobat.com

HIZKUNTZAK IKASTEKO AUKERA DANOBATGROUP-EN

1 IMPLANT

HIZKUNTZAK: Ingelesa eta alemana.

DATA: Urtetik ekainera.

HELBURUA: Klase pertsonalizatuak, norberaren beharretara egokituta. Banaka edo talde txikietan egin daitezke. Helburua ikaslearen behar zehatzei erantzutea da, adibidez bilerak eta aurkezpenak prestatzeko.

2 ONLINE IKASTAROAK

ORDUTEGIA: Lan ordutegitik kanpo.

HIZKUNTZAK: Euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana.

DATA: Urtetik ekainera.

NORI ZUZENDUA: Hizkuntza maila aurreratuagoa behar dutenak, baina klase prezentzialetara joaterik ez dutenak.

OPCIONES PARA APRENDER IDIOMAS EN DANOBATGROUP

1 IMPLANT

IDIOMAS: Inglés y alemán.

FECHAS: De octubre a junio.

OBJETIVO: Klase pertsonalizatuak, norberaren beharretara egokituta. Banaka edo talde txikietan egin daitezke. Helburua ikaslearen behar zehatzei erantzutea da, adibidez bilerak eta aurkezpenak prestatzeko.

2 ONLINE MULTIMEDIA

HORARIO: Fuera de horario laboral.

IDIOMAS: Euskara, inglés, francés y alemán.

FECHAS: De octubre a junio.

DIRIGIDO A: Personas que necesiten avanzar en el idioma y que no puedan asistir a los grupos presenciales.



english • euskara • français • deutsch

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA